

» DISKOA

Askatasun haizea



Joxi Ubeda

Glaukomak beste urrats bat egin du aurre-ra *Kalima* hirugarren lan luzearekin. Disko bikoitza da, lan bikaina, Karlos Osinagaren gidaritzapean eta Joseba Ponceren diseinua-rekin ederki osatua. Betiko Glaukoma dela antzeman daiteke kantuetan, baina helduagoa, zuzenagoa, gordinagoa, gogorragoa.

Reggae eta rap erritmoak eta doinuak dira nagusi, dancehall eta raggamuffin aireak ere ageri dira, beren kantuetan ohi den bezala, eta rock ukituak ere antzeman daitezke, aurreko lanetan baino nabarmenago.

Haien bidez, bidegabekeriak eta jendartearen gaixotasunak dituzte hizpide, boterea, faxismoa, kapitalismoa, ustelkeria, zapalkuntza, arrazakeria, errefuxiatuen tragedia, gerrak, historiaren manipulazioa, generoaren erakuntza soziala, ongizate espejismoak, lan eta bizimodu eskasa, maitasun faltsua, indibidualismoa, itxurakeria... Eta begirunea, berdintasuna, adierazpen askatasuna, memoria historikoa, nor den bezala izatea eta bere burua onartzea, eta nork bere buruarekin pentsatzea eta erabakitzea aldarrikatzen dute.

Besteak beste, hauxe diote: "Migranteen hilobi Mare Nostrum, bitarten magnate baten yatea Pasaiaiko portun; Siriako esklabuk ez al du zuk daukezun jabe bea?" (*Fire –they're commin-*), "Kale bazterretan miseria Historia jaten ai da; itsu-mutu-gor-en garaia, galdera gabeko mende baten kronika" (*Kalima*), "Ez-tao generoik genitaletan, egitura mentala da; nortasunen banaketan, zu woman eta ni man, bakoitza bere ziegan; kapitalai halaxe komeni

Kalima

GLAUKOMA

Bonberenea Ekintzak, 2017



zaio, dominazio sistema bereizketan jaio da" (*Gure kaiola*), "Artalde honen parte izan baino lehen izango naiz nere Jaungoikoa" (*Intro*).

Kalimak hesiak eta mugak gaintitzen ditu. Protesta, salaketa eta aldarrikapen oihuak biltzen dituen lanbroa da, beroa, eta askatasun haizeak mugitzen du.

Bonberenea gainezka zegoela aurkeztu dute irailean, eta hurrengo emanaldietara ere lagun ugari bilduko da: Arrasateko gaztetxean urriaren 5ean, Bilboko Stage Live aretoan urriaren 7an, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan urriaren 28an, Donostiako Intxaurren kultur etxean azaroaren 4an, Bartzelonako Apolo aretoan azaroaren 18an eta Ondarroako Beikoizini aretoan azaroaren 25an. ■

Glaukoma taldeko kideak.

